



ETXE MAITIA ZENTROAren ustez kalitatea elementu estrategiko bat da, eta Zuzendaritza arduratu behar da horretaz, ezartzeko helburuak zehaztu beharko ditu eta. Kalitateari dagokionez, erakunde osoko kideei azaldu behar zaien balio lehiakorra da, eta zentroko maila eta langile guztiek hartu behar dute parte horretan. Horretarako, etengabe hobetzeko helburuetara hurbildu eta bideratuko dute erakundea.

Hauxe da gure asmoa/xedea: **“Erabiltzaileen ongizatearen alde egitea haien oinarrizko premia guzti-guztietan arreta jarritz, egoera fisikoa, psikikoa eta soziala hobetze aldera. Hain zuzen ere, xedea da erabiltzaileei kalitate oneko arreta berezitua eskaintzea, dituzten benetako beharrezanezi egokituta dagoena. Horretarako, zerbitzu eta programa sorta aberats bat eskainiko da”**.

Hauexek dira gure **helburua estrategikoak**:

- Sustatzea erabiltzaileen zahartze aktiboa eta osasungarria, familiek zentroko bizitzan parte hartzea eta adinekoentzako zentro ireki eta dinamiko bat.
- Bultzatzea elikadura osasungarria eta pertsonalizatua.
- Erabiltzaileei osasun-arreta pertsonalizatu eta osoa ematea.
- Erabiltzaileen duintasun, askatasun eta autonomiaren eskubideekiko errespetua bultzatzea eta bermatzea, bai eta erabiltzailea orientatzeari eta etengabeko hobekuntzarekiko konpromisoari dagokiena ere.
- Okupazioa maximizatzea eta autofinantzaketa hobetzea.